



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko apirilaren 11

33. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernuak premiatzen da Nazio Batuen Erakundeari eska diezaion maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna deklaratzeko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da laguntza-neurrien sistema bat ezar dezan, familiek lurreko telebista digitaleko hargailuak eta dekodegailuak erosi ahal izateko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere kezka agertzen du, Tibeteko indarkeria egoera dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen neurriak hartzeko Spanair konpainiak Madril-Iruña hegaldiak eteteko hartu duen erabakiaren aurrean. Ion Erro Armendáriz jaunak egina (6. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer proiektu dituen uholdeen prebentziorako larrialdietarako plan bereziaren plangintzaren barruan. Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (6. or.).
- Galdera, kudeaketa publikoko nahiz pribatuko zahar-etxeei eta bertako langileei aplikatzen zaizkien hitzarmenei buruzkoa. Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (7. or.).
- Galdera, udalerrietan adineko pertsonak dituzten beharizanen gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa. Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (8. or.).
- Galdera, 2007-2008 eta 2006-2007 ikasturteetako eskaintza eta eskaerari buruzkoa, adin-tarteen eta hizkuntza ereduaren arabera xehakaturik. María Luisa Mangado Cortes andreak egina (8. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez diren argitaratu Cetena fundazioko kontuak 2008ko aurrekontuetako fundazioei buruzko kapituluaren. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroako olioaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedientei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (9. or.).

- Galdera, Nafarroako patxaranaren adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako artisautzako elikagaien kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Tuterako orburuaren adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Nafarroako arkumearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Nafarroako aratxearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako ardoaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Erronkariko gaztaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Lodosako pikillo piperraren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako produkzio integratuaren kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako produkzio ekologikoaren kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntza edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Leitzako Erasote eta Erreka auzoetan ezin den lurreko telebista digitala ikusi eta Nafarroako Gobernuak zer asmo duen arazo hori konpontzeko. Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (15. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernuak premiatzen da Nazio Batuen Erakundeari eska diezaion maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna deklaratzeko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Estatuko Gobernuak premiatzen baita Nazio Batuen Erakundeari eska diezaion maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna deklaratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Osasunaren Mundu Erakundeak 1990eko maiatzaren 17an kendu zuen homosexualitatea adimen-gaixotasunen zerrendatik. Zerrendatik kentze horren bidez, ia mende bateko homofobia medikoa eta lesbiana, gay eta bisexualen kontrako bereizkeria sistematikoa amaiarazi nahi zen.

Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna ezarrita ondokoa lortu nahi da: Giza Eskubideetarako Nazio Batuen goi-komisa-

rioak eta Giza Eskubideen Batzordeak orobat gaitzestea homofobia eta transfobia beren adierazpen politiko, sozial eta kulturaletan. Osasunaren Mundu Erakundearen erabakia historikoa da, oso ikur garrantzitsua lesbianen, homosexualen, bisexualen eta transexualen duintasuna aldarrikatzeko borrokan. Hori dela eta, maiatzaren 17a homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko eguna izan dadila proposatzen dugu.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak, Oinarrizko Eskubideen Gutuneko printzipio nagusiak defendatuz –bazterkeriarik eza da horietako bat–, maiatzaren 17a Homofobia eta Transfobiaren aurkako Borroka Nazioarteko Eguna izendatzea aldeztu du, herritar guztien eskubideen sustapen eta berdintasunaren alde dagoela erakuste aldera, zein ere den herritar horien orientazio sexuala edo genero-nortasuna.

2008ko maiatzaren 17an hemezortzi urte beteko dira Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea adimen-gaixotasunen zerrendatik kendu zutenetik, eta horren karietara Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna helarazi nahi die beren orientazio sexuala edo genero-nortasuna dela-eta mundu osoan bereizkeria larria pairatzen duten milioika pertsonari, eta dei egiten die herritar guztiei, eta bereizki gainontzeko erakunde publikoei, homofobiaren eta transfobiaren aurka borroka daitezen.

Nafarroako Parlamentuak, arestian azaldutako konpromisoekin bat, Espainiako Estatuko Gobernuak premiatzen du Nazio Batuen Erakundeari eska diezaion maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna deklaratzeko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da laguntza-neurrien sistema bat ezar dezan, familiek lurreko telebista digitaleko hargailuak eta dekodegailuak erosi ahal izateko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita laguntza-neurrien sistema bat ezar dezan, familiek lurreko telebista digitaleko hargailuak eta dekodegailuak erosi ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da laguntza-neurrien sistema bat ezar dezan, familiek lurreko telebista digitaleko hargailuak eta dekodegailuak erosi ahal izateko.

Zioen azalpena

Lurreko telebista digitala telebista-seinalea hedatzeko teknologia berria da, eta hemendik gutxira zeharo ordezkaturiko du ohiko telebista analogikoa. Aldaketa berehala gertatuko da; izan ere, itzalaldi analogikoa 2012rako ezarri zen hasiera batean, baina aurreratu egin zen, legez ezarri baitzen 2010eko apirilaren 3an bukatuko direla emaldi analogikoak.

Lurreko telebista digitalak abantaila ugari dakarkie erabiltzaileei, irudiak eta soinua teknologia digitalaren bidez igortzen baitira, eta horri esker, ugariatu eginen ahal da telebista-kanalen kopurua; alegia, informazio gehiago egonen da eta anitzagoa izanen da, kalitatea hobetuko da,

eta zerbitzu elkarreragileak baliatu ahalko dira. Ikusleak, hortaz, ikus-entzunezkoen munduko osagai aktibo bihurtu ahalko dira, eta bultzada handia eman ahalko zaio Nafarroan ikus-entzunezkoen sektoreari.

Gaur egun lurreko telebista digitaleko kanal eta zerbitzuen eskaintza handia dago jadanik –Espainiako 20 kanal baino gehiago eta erkidegoko beste lau, nahiz eta une honetan erkidegoko bi kanal baizik ez egon abian–, eta eskaintza hori handitu egingen da arian-arian, itzalaldi analogikoren ondotik eskaintza osatu arte.

Hiru dira, funtsean, lurreko telebista digitala jaso ahal izateko eskakizunak:

1. Eremuan estaldura egotea. Nafarroako Gobernuak aurreikusia du hori “Lurreko telebista digitalaren zerbitzua unibertsalizatzeko azpiegiturak hedatzeko planean”.

2. Antena kolektiboaren instalazioa egokitzea, baldin eta egokitu beharra badago.

3. Lurreko telebista digitaleko sintonizadorea edukitzea.

Lurreko telebista digitala da etorkizuneko telebista, eta horren onurak eskuragarri daude dagoeneko; horrenbestez, komeni da lehenbailehen egokitzea, horren abantailaz gozatu ahal izateko. 2008ko urtarrilean Espainiako etheen %29,2an jasotzen zen lurreko telebista digitala.

Nafarroako 2008rako aurrekontu orokorretan alderdi sozialistak aurkeztutako zuzenketa bat onetsi zen, pizte digitalerako 500.000 euro bideratze aldera. Laguntza horren bidez, nafarren etxeetan lurreko telebista digitala jasotzea bultzatu nahi da.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du laguntza-neurrien sistema bat ezar dezan, familiek lurreko telebista digitaleko hargailuak eta dekodegailuak erosi ahal izateko.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere kezka agertzen du, Tibeteko indarkeria egoera dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herriaren ordezkari politikoa den aldetik, bere kezka agertzen du Tibetean hildakoak eragiten ari den indarkeria egoera dela eta.

Nafarroako Parlamentuak Txinako Gobernuari adierazten dio Tibeteko herritarrei dagozkien giza eskubideak errespetatu eta zaindu beharra dagoela.”

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen neurriak hartzeko Spanair konpainiak Madril-Iruña hegaldiak eteteko hartu duen erabakiaren aurrean.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen neurriak hartzeko Spanair konpainiak Madril-Iruña hegaldiak eteteko hartu duen erabakiaren aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik neurriak hartzeko Spanair konpainiak Madril-Iruña hegaldiak eteteko hartu duen erabakiaren aurrean?

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer proiektu dituen uholdeen prebentziorako larrialdietarako plan bereziaren plangintzaren barruan.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer proiektu dituen uholdeen prebentziorako larrialdietarako plan bereziaren plangintzaren barruan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluko agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroan, urtebetean, intentsitate edo larritasun handiagoko edo txikiagoko uholdeak izan ditugu (Erriberan, Baztanen, Bortzirietan, Urdazubin, Zugarramurdin) eta alerta egoeran egon gara Atarrabian, Lizarran, Tuteran eta abar ur-goraldiak izan direlako.

Egia da uholdeak ekidin ezinak direla kasu askotan, baina egia da orobat prebentzio on batek uholdeen ondorioak arintzen ahal dituela edo kalteak oso txikiak izan daitezela lortu.

Hondamena gertatu ondotik esku hartu beharra dago, bai, baina gure ustez ezinbestekoa da prebentzio-ekintzak taxutzea, gerta litezkeen hon-

damendi naturalen ondorioak arindu edo deuseztatzea helburu. Ikusita non gertatu ziren 2007ko maiatzeko uholdeak, susmoa dugu behar zirenak baino baliabide gutxiago baliatuta konpondu nahi izan zirela kalteak, ez baitugu ekintza garbirik ikusten kalte berberak ekidite aldera, baldin eta antzeko eguraldi-baldintzak gertatzen badira.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

– Otsailaren 25eko 45/2002 Foru Dekretua onetsi zenez gerotik, zein dira prebentzio-proiektuak larrialdietako plan bereziaren plangintzaren barruan edo Nafarroako Foru Komunitatean uholdeak gertatzeko arriskuaren aurrean?

– 2008ko aurrekontuetako zer kontusail daude bideratuta uholdeen prebentziora?

Iruñean, 2008ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, kudeaketa publikoko nahiz pribatuko zahar-etxeei eta bertako langileei aplikatzen zaizkien hitzarmenei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, kudeaketa publikoko nahiz pribatuko zahar-etxeei eta bertako langileei aplikatzen zaizkien hitzarmenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zahar-etxeetako hitzarmenei buruzko galdera.

Zenbat hitzarmen mota aplikatzen zaizkie kudeaketa publikoko nahiz pribatuko zahar-etxeei eta bertako langileei, zuzeneko laguntzakoak izan ala ez?

Iruñean, 2008ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, udalerrietan adineko pertsonen dituzten beharrizanen gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, udalerrietan adineko pertsonen dituzten beharrizanen gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Hirugarren adinekoen beharrizanei buruzko azterlanetarako dirulaguntzei buruzko galdera.

Zer laguntza ematen zaizkie udalei, hirugarren adinekoek udal-eremuan dituzten beharrizanei buruzko azterlanak egin ditzaten?

Iruñean, 2008ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, 2007-2008 eta 2006-2007 ikasturteetako eskaintza eta eskaerari buruzkoa, adin-tarteen eta hizkuntza ereduen arabera xehakaturata.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, 2007-2008 eta 2006-2007 ikasturteetako eskaintza eta eskaerari buruzkoa, adin-tarteen eta hizkuntza ereduen arabera xehakaturata.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzako eskaintzaren eta eskariaren bilakaera aztertu ahal izateko, parlamentari honek jakin nahi du zein den 2007-2008 eta 2006-2007 ikasturteetako eskaintza eta eskaria, hizkuntza ereduen eta hezkuntza-tarteen arabera xehakaturata.

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, jakiteko zergatik ez diren argitaratu Cetena fundazioko kontuak 2008ko aurrekontuetako fundazioei buruzko kapituluan.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez diren argitaratu Cetena fundazioko kontuak 2008ko aurrekontuetako fundazioei buruzko kapituluan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

Zergatik ez dira argitaratu Cetena fundazioko kontuak 2008ko aurrekontuetako fundazioei buruzko kapituluan?

Iruñean, 2008ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Nafarroako olioaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedientei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako olioaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedientei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arau-hausteren bat egon dela Nafarroako olioaren jatorrizko deitura babestuan?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arau-haustereen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Angel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroako patxaranaren adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako patxaranaren adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arau-hausteren bat egon dela Nafarroako patxaranaren adierazpen geografiko babestuan?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arau-haustearen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroako artisautzako elikagaien kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako artisautzako elikagaien kalitate ziurtagirian arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arau-hausteren bat egon dela Nafarroako artisautzako elikagaien kalitate ziurtagirian?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arau-haustearen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Tuterako orburuaren adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako orburuaren adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arau-hausteren bat egon dela Tuterako orburuaren adierazpen geografiko babestuan?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arau-haustearen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Angel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroako arkumearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako arkumearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arau-hausteren bat egon dela Nafarroako arkumearen adierazpen geografiko babestuan?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arau-haustearen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Angel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroako aratxearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako aratxearen adierazpen geografiko babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arau-hausteren bat egon dela Nafarroako aratxearen adierazpen geografiko babestuan?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arau-haustearen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroako ardoaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ardoaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arau-hausteren bat egon dela Nafarroako ardoaren jatorrizko deitura babestuan?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arau-haustearen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Erronkariko gaztaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Erronkariko gaztaren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arau-hausteren bat egon dela Erronkariko gaztaren jatorrizko deitura babestuan?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arau-haustearen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Angel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Lodosako pikillo piperraren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Lodosako pikillo piperraren jatorrizko deitura babestuan arau-hausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arau-hausteren bat egon dela Lodosako pikillo piperraren jatorrizko deitura babestuan?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arau-haustearen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroako produkzio integratuaren kalitate ziurtagirian arauhausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako produkzio integratuaren kalitate ziurtagirian arauhausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arauhausteren bat egon dela Nafarroako produkzio integratuaren kalitate ziurtagirian?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arauhaustearen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Angel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroako produkzio ekologikoaren kalitate ziurtagirian arauhausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako produkzio ekologikoaren kalitate ziurtagirian arauhausteren bat egon dela ondorioztatu duten zehapen espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, zenbat zehapen espedientek ondorioztatu dute arauhausteren bat egon dela Nafarroako produkzio ekologikoaren kalitate ziurtagirian?

Zerrenda bat jaso nahi dugu, urtez urte adierazten duena arauhaustearen zergatia eta ezarritako isuna.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntza edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntza edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak Nafarroako 2008rako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legearen aurreproiektua dela-eta eginiko txostenean adierazi zuen ezin izan zela identifikatu kontusail bat ere Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial izenekoaren lanei laguntzeko. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Nafarroako Gobernuak eman al dio inolako laguntzarik 2007an Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial izenekoari? Eman baldin badio, laguntzaren zenbatekoari, kontzeptuari eta kontusailari buruzko informazioa jaso nahi dugu.

b) Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik aipatu fundazioari inolako laguntzarik emateko 2008an? Emateko asmorik baldin badu, laguntzaren zenbatekoari, kontzeptuari eta kontusailari buruzko informazioa jaso nahi dugu.

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, jakiteko zergatik Leitzako Erasote eta Erreka auzoetan ezin den lurreko telebista digitala ikusi eta Nafarroako Gobernuak zer asmo duen arazo hori konpontzeko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Leitzako Erasote eta Erreka auzoetan ezin den lurreko telebista digitala ikusi eta Nafarroako Gobernuak zer asmo duen arazo hori konpontzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Leitzako Erasote eta Erreka auzoetan zergatik ezin da ikusi lurreko telebista digitala?

Nafarroako Gobernuak zer asmo du arazo hori –beste udal batzuetan ere gertatzen dena– konpontzeko?

Iruñean, 2008ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	